# EZOHIKO ETA PREMIAZKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2007IPLE0007
**Eguna:** 2007/05/21
**Ordua: 13:00-13:20**
**Tokia:** Areto nagusia

**Bertaratuak**

| | |
|---|---|
| - Bixente Arrizabalaga Bengoetxea | EA/EAJ-PNV |
| - Jesús Fontal García | EA/EAJ-PNV |
| - Juan Joxe Uranga Mendiburu | EA/EAJ-PNV |
| - Eloy Bazan Bazan | EA/EAJ-PNV |
| - Mª Jesús Arruabarrena Izagirre | EA/EAJ-PNV |
| - Iñaki Irigoien Lukanbio | EA/EAJ-PNV |
| - Javier Francisco Moreno Gonzáles de Lara | PP |

**Bertaratu ez direnak:**

| | |
|---|---|
| - José Luis Ugarte Madinabeitia | EA/EAJ-PNV |
| - Jon Arregi Sagües | EA/EAJ-PNV |
| - Xabier Alberro Osa | EA/EAJ-PNV |

**Idazkaria**

- Xabin Olaizola Lasa

**Aztergaiak**

| **EGUNEKO AZTERGAIAK** | **Zk / Nº** | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| Premiazkotasunaren berrespena | **1** | Ratificación de la urgencia |
| 2007ko maiatzaren 4ko aktaren onarpena | **2** | Aprobación del acta de 4 de mayo de 2007 |
| Nekanenea: hirigintzako hitzarmenaren behin betirako onartzea | **3** | Aprobación definitiva del convenio urbanístico casa Nekanenea. |
| 14. Area: hirigintzako hitzarmenaren eranskinaren behin betirako onartzea | **4** | Aprobación definitiva del Anexo al convenio urbanístico Area 14 |
| Astigarragako Udala eta Hormigones y Minas S.A. eta beste hainbaten arteko hirigintza hitzarmenaren hasierako onarpena. | **5** | Aprobación inicial del convenio urbanístico entre el Ayuntamiento de Astigarraga y sociedades Hormigones y Minas S.A. y otras sociedades. |
| Teleasistentziako erregelamenduaren hasierako onarpena. | **6** | Aprobación del reglamento de Teleasistencia. |

**Esan-eginak eta erabakiak**

**1.- Premiazkotasunaren berrespena**

Aho batez onartu da.

**1.- Ratificación de la urgencia**

Se aprueba por unanimidad.

**2.- 2007ko maiatzaren 4ko aktaren onarpena**

Aktak aho batez onartu dira

**2.- Aprobación del acta de 4 de mayo de 2007**

Se ha aprobado el acta precitada por unanimidad.

**3.- Nekanenea: hirigintzako hitzarmenaren behin betirako onartzea**

Alkateak Osoko Bilkurari Hirigintza Batzordeak eginiko diktamena, aurkeztu dio akordio hauek proposatuz:

Lehena.- 2007ko maiatzaren 15eko datarekin egindako txosten juridikoaren arabera, Patxi Xabier Garmendiak aurkeztutako iradokizuna onartzea.

Bigarrena.- Udal arkitektoa den, Tito Perkaz Imazek, aurkeztutako iradokizuna ukatzea, Hirigintzako Batzorde informatiboak bertan aspektu politikoak ikusten dituelako eta tekniko bezala ez dagokiolako horrelakorik egitea eta iradokizuna bezala onartzekotan hau Astigarragako Plan Orokorraren hasierako onarpenean aurkeztuak izan behar zutelako.

Hirugarrena.- Donostia Ibilbidea 21(e)an zegoen Nekanenea Etxeari buruzko Hitzarmena Gaiar Eraikuntzak, S.L. enpresarekin sinatzea.

Laugarrena.- Nakenenea Etxeari buruzko Hitzarmena behin betiko izaeraz onartzea bertan Gaiar Eraikuntzak, S.L. enpresak sinatuko duela bermatzeko beharrezko aldaketak jasoko direlarik.

**3.- Aprobación definitiva del convenio urbanístico casa Nekanenea.**

El Alcalde somete al Pleno el dictamen de la Comisión de Urbanismo proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

*Primero.-* Estimar la alegación formulada por Patxi Xabier Garmendia, en base al informe jurídico de fecha 15 de mayo de 2007.

Segundo.- Desestimar la alegación formulada por el arquitecto municipal, Tito Perkaz Imaz, al considerarse –por parte de la Comisión Informativa de Urbanismo- que en el escrito presentado se reflejan aspectos políticos que como técnico no le corresponden valorar y que de considerarse alegación, ésta debería haberse presentado en la fase de aprobación inicial al Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga.

*Tercero.-* Formalizar el Convenio urbanístico referido a la casa Nekanenea (Donostia Ibilbidea 21) con la Entidad Mercantil Gaiar Eraikuntzak S.L.

*Cuarto.-* Aprobar definitivamente el Convenio Urbanístico referido a la Casa Nekanenea, con la incorporación de las modificaciones necesarias que garanticen que la firma se realizará con la mercantil Gaiar Eraikuntzak, S.L.

Bosgarrena.- Aipatu hitzarmena garatzeko beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko Alkatea den, Bixente Arrizabalaga Bengoetxea, ahalmentzea.

Quinto.- Facultar al Alcalde, Bixente Arrizabalaga Bengoetxea, a la firma de cuantos documentos sean necesarios para el desarrollo del convenio citado.

Ondoren Alkateak proposamena bozkatzea proposatu du eta ,aho batez, onartua izan da.

A continuación el alcalde somete la propuesta para su aprobación por Pleno siendo aprobada por unanimidad.

**4.- 14. Area: hirigintzako hitzarmenaren eranskinaren behin betirako onartzea**

**4.- Aprobación definitiva del Anexo al convenio urbanístico Area 14**

Alkateak Osoko Bilkurari Hirigintza Batzordeak eginiko diktamena, aurkeztu dio akordio hauek proposatuz:

El Alcalde somete al Pleno el dictamen de la Comisión de Urbanismo proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

Lehena.- Udal Idazkaria den, Xabin Olaizola Lasak, aurkeztutako iradokizuna ukatzea, sinatutako aurreko hitzarmenean jasotzen delako ez zirela karga gehiagorik handituko sustatzaileak behartuta ikusi zirenean terreno gehiago erostera, abiadura handiko trenaren trazaketa aldatu zenean eta egokitzeko.

Primero.- Desestimar la alegación presentada por el Secretario-Interventor, Xabin Olaizola Lasa, indicando que se adoptó un acuerdo anterior donde se recogía que no se iban a incrementar mas cargas en el área 14, cuando los promotores se vieron obligados a incrementar la compra de mas terreno en dicho ámbito por la modificación del trazado del tren de alta velocidad.

Bigarrena.- Udal arkitektoa den, Tito Perkaz Imazek, aurkeztutako iradokizuna ukatzea, Hirigintzako batzorde informatiboak bertan azpektu politikoak ikusten dituelako eta tekniko bezala ez dagokiolako horrelakorik egitea eta iradokizuna bezala onartzekotan hau Astigarragako Plan Orokorraren hasierako onarpenean aurkeztuak izan behar zutelako.

Segundo.- Desestimar la alegación formulada por el arquitecto municipal, Tito Perkaz Imaz, al considerarse –por parte de la Comisión Informativa de Urbanismo- que en el escrito presentado se reflejan aspectos políticos que como técnico no le corresponden valorar y que de considerarse alegación, ésta debería haberse presentado en la fase de aprobación inicial al Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga.

Hirugarrena.- 14. eremuari buruzko hirigintza hitzarmenaren eranskina behin betiko izaeraz onartzea.

Tercero.- Aprobar definitivamente el anexo al Convenio Urbanístico referido al área 14 “Ergobia Ibilbidea” a formalizar con Gailur Toki, S.L.

Laugarrena.- Aipatu hitzarmena garatzeko beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko Alkatea den, Bixente

Cuarto.- Facultar al Alcalde, Bixente Arrizabalaga Bengoetxea, a la firma de cuantos documentos sean necesarios para

Arrizabalaga Bengoetxea, ahalmentzea.

Bozketa aurretik Idazkariak adierazi du 7/85 Legeak 47.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, akordio honek gehiengo absolutua bermatu beharko duela.

Ondoren Alkateak proposamena bozkatzea proposatu du eta ,aho batez, onartua izan da.

**5.- Astigarragako Udala eta Hormigones y Minas S.A. eta beste hainbaten arteko hirigintza hitzarmenaren hasierako onarpena.**

Xabier Alberro zinegotzia bertaratu da.

Alkateak Osoko Bilkurari Hirigintza Batzordeak eginiko diktamena, aurkeztu dio akordio hauek proposatuz:

Lehena.- Cementos Rezola, Hormigones y Minas, S.A. eta Udaletxearekin sinatzeko hitzarmenaren zirriborroa hasierako izaeraz onartzea. Bertan eta Udaletxeak hartzen dituen konpromisoen epeak Astigarragako Plan Orokorraren 26. Ubarburu Zabalpena eremua behin betiko onartzen denetik kontatzen hasiko direla argitzeko, beharrezko aldaketak jaso beharko dira.

Bigarrena.- 2/2006 Legeak bere xedapen gehigarriaren 8. artikuluan xedatzen duenaren arabera hitzarmena jendaurrean ezartzea, 20 eguneko epea zabalduz eta testu osoa GAO kaleratuaz.

Hirugarrena.- Aipatu hitzarmena garatzeko beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko Alkatea den, Bixente Arrizabalaga Bengoetxea, ahalmentzea.

Bozketa aurretik Idazkariak adierazi du

el desarrollo del convenio citado.

Informa el Secretario Interventor que conforme a lo dispuesto en el art 47.2 de la Ley 7/85 la aprobación de este acuerdo requiere acuerdo de mayoría absoluta.

A continuación el alcalde somete la propuesta para su aprobación por Pleno siendo aprobada por unanimidad.

**5.- Aprobación inicial del convenio urbanístico entre el Ayuntamiento de Astigarraga y sociedades Hormigones y Minas S.A. y otras sociedades.**

Se persona el concejal Xabier Alberro.

El Alcalde somete al Pleno el dictamen de la Comisión de Urbanismo proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

Primero.- Aprobar con carácter inicial el Borrador el convenio urbanístico a formalizar con la Sociedad financiera y Minas, S.A.-Cementos Rezola y Hormigones y Minas, S.A., debiendo recogerse las modificaciones necesarias que aclaren que los plazos que el Ayuntamiento se compromete a cumplir, comenzaran a contar a partir de la aprobación definitiva de la A.I.U 26 "Ubarburu Zabalpena" del Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga.

Segundo.- De conformidad con el apartado 8 de la Disposición adicional séptima de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo, someter a información pública, por el plazo de 20 días, el documento en cuestión, insertando anuncio en el B.O.G.

Tercero.- Facultar al Alcalde, Bixente Arrizabalaga Bengoetxea, a la firma de cuantos documentos sean necesarios para el desarrollo del convenio citado.

7/85 Legeak 47.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, akordio honek gehiengo absolutua bermatu beharko duela.

Informa el Secretario Interventor que conforme a lo dispuesto en el art 47.2 de la Ley 7/85 la aprobación de este acuerdo requiere acuerdo de mayoría absoluta.

Ondoren Alkateak proposamena bozkatzea proposatu du eta ,aho batez, onartua izan da.

Seguidamente el alcalde somete la propuesta para su aprobación por Pleno siendo aprobada por unanimidad.

**6.- Teleasistentziako erregelamenduaren hasierako onarpena.**

**6.- Aprobación del reglamento de Teleasistencia.**

Alkateak Osoko Bilkurari Gizarte ongizateko batzordeak eginiko diktamena, aurkeztu dio Teleasistentzia erregelamenduaren onarpena proposatuz:

El Alcalde somete al Pleno el dictamen de la Comisión de Bienestar Social proponiendo la aprobación del reglamento de Teleasistencia.

Idazkari Kontu-hartzaileak jakinarazten du, 7/85 legearen 49.artukuluaren arabera, erregelamendu honen onarpenak honako akordioak adostea galdatzen duela:

Informa el Secretario Interventor que de conformidad a lo dispuesto en el art. 49 de la Ley 7/85 el procedimiento de aprobación de este reglamento requiere la adoción de los siguientes acuerdos:

1.- Plenuaren hasierako onarpena

2.- 30 eguneko epean jende aurrean azaldu, interesatuek dagozkien erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ditzaten.

3.- Epe barruan jasotako erreklamazio eta iradokizunak erantzun eta pleuren behin betiko onarpena aurrera eraman.

1.- Aprobación inicial por el pleno.

2.- Información pública y audiencia a los interesados durante un plazo mínimo de 30 días para la presentación de reclamaciones y sujerencias.

3.- Resolución de todas las reclamaciones y sujerencias presentadas dentro del plazo y aprobación definitiva por el pleno.

Ondoren Alkateak proposamena bozkatzea proposatu du Idazkariak azaldutakoak barneratu eta gero eta ,aho batez, onartua izan da.

A continuación el Alcalde somete la propuesta de aprobación incluyendo los acuerdos reseñados por el Secretario Interventor siendo aprobados por unanimidad.

Ondoren Alkateak adierazten du Ori-Berri S.L.rekin sinatutako hitzarmenak, jende aurrean egon ondoren ez duela inolako alegaziorik izan eta beraz proposatu du espedientea behin betirako onartzea. Batzarkideek premiazko aitorpena onartu ondoren proposamena berretsi dute espedientea behin betirako onartuaz.

A continuación el Alcalde da cuenta de que el convenio con Ori-Berri S.L. no ha recibido alegación alguna durante el periodo de exposición pública y por tanto propone su aprobación definitiva. Los miembros previa declaración de urgencia han ratificado la propuesta, quedando el

expediente aprobado definitivamente.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2007ko maiatzaren 21a

**Xabin Olaizola Lasa**
**Idazkari Kontu-hartzailea**